

ESKER ONEZKO OTOITZAK

LEHENA

Xalbat BERTERRETCHÉ

Mikel ERRAMOUSPE

Jean LARRIEU (1987)

Jainko gure Aita, zuk bildu gaitutzu, eta zure aintzinean gaude zu goresteko, eder eta haundi zirela bihotz bihotzez aitorzeko. Gora zu, munduan diren gauza eder guzieren gatik, eta gure bihotzetan emaiten duzun bozkarioaren gatik. Gora zu, eguneko argiaren gatik, eta gure gogoak argitzen dituen zure hitzaren gatik. Gora zu, lurraren gatik eta lurrean bizi diren gizonen gatik, eta zu ganik daukagun biziaren gatik.

Bau, guziz ona zira, maite gaitutzu, eta miragarriak egiten ditutzu guretzat. Horren gatik denek batean kantatzen dugu :



BATEK Mim SI7 Mim SI7 Mim RE SOL

ZE-RU LUR-RAK BETERIK DAUZKA ZU-RE DISTIRAK , HOZANA...

DENEK MI7 Lam RE SOL Mim Lam SI7 Mim

HOZANA ZERU GORE-NE - TAN HOZANA ZERU GORENETAN !

Zelü lürrak betherik
dauzka zure distirak
Hozanna zelü goreneta

Zuk, Aita, gogoan dituzu beti gizonak, eta ez duzu nahi heien ganik urrun egon. Horren gatik igorri zinuen gu ganat zure Seme maitea: Jesus gu salbatzerat etorri zen, eriak sendatu zituen, eta bekatoreeri salbamendua eskaini zioten. Guzieren zure maitasuna erakutsi zioten, eta haurrak bere ganat hartu eta benedikatu zituen. Horren gatik, esker onez beterik, kantatzen dugu :



BATEK Mim DO SOL SOL RE SI7

BENE-DIKA-TU-A JAUNAREN IZE-NE AN DA - TORRENA HOZANA...

Benedikatia Jaunaren
izenian horra dena
Hozanna zelü goreneta

Ez gira bakarrik, Jauna, zu goresten zaitugunak: lurraren alde guzietan goresten zaitu zure herriak. Eliza osoarekin batean; otoitz egiten dautzugu ... gure aita sainduarekin, eta ... gure artzainarekin. Zeruan Birjina Mariak, eta apostolu eta saindu guzietan beti eskerrak emaiten daukitzute. Heiekin batean eta aingeruekin, guk ere adoratzeko zaitugu, denek kantari diogula :



SOL RE SOL Mim RE RE DO SI7

SAINDU SAINDU SAINDU A
SAINDU SAINDU SAINDU A DIREN GU-ZIEN JAINKO JAUNA HOZANA...

Saintü Saiñtü Saintia
diren güzien Jinko Jauna
Hozanna zelü goreneta.

Aita guziz saildua, zuri gure esker ona erakusteko, ogia eta arnoa ekarri ditugu. Egin ditezela guretzat Jesus, zure Seme hilen artetik piztuaren gorputz eta odol. Horrela eskainiko dautzugu zure bihotz onak eman daukun dohain hau.

Arrats batez, Jesus, hil baino lehen, mahainean zagon bere apostoluekin. Mahainetik ogia hartu zuen, eta zuri eskerrak emanez, zatitu zuen, eta bere adixkideeri eman zioten, erranez:

Har zazue ta jan guzietan huntarik: hau nere gorputza baita, zuentzat emanen dena.

Gero, afal ondoan, kalitza arnoz bete hartu zuen, eta zuri eskerrak emanez, bere adixkideeri eskaini zioten, erranez:

Har zazue ta edan guzietan huntarik: hau nere odolaren kalitza baita, batasun berri ta betikoaren odola, zuentzat eta guzientzat bekatuak barkatzeko ixuriko dena.

Eta gero erran zioten : Egizue hau, nere orroitzari.



KRISTO GURE GATIK HIL DA KRISTO GURE GATIK HIL DA
 HILEN ARTE-TIK PIZTU DA HILEN ARTE-TIK PIZTU DA

Kristo gure gaik hil da
 Hilen artetik phiztu da
 Zure zain gaude Jesus jauna



ZURE ZAIN GAUDE JESUS JAUNA ZURE ZAIN GAUDE JESUS JAUNA

Jauna, Jesusek egiteko erran zaukuna egiten dugu orai: Haren heriotzea eta piztea ospatzen ditugula, biziaren ogia eta salbamenduaren kalitza eskaintzen daukitzugu.

Jesusek zu ganat eremaiten gaitu: onhar gaitzazu harekin batean.

Hainbeste maite gaituzun Aita, utz gaitzazu mahain huntarat etortzerat, Izpiritu Sainduaren bozkarioan denek bat eginik zure Semearen gorputz-odolak hartzeko.

Zuk, Jauna, ez duzu behinere nehor ahanzten: horren gatik otoitz egiten dautzugu maite ditugun ... eta ... rentzat, eta lur huntarik zu ganat joan diren guzientzat. Gogoan izan, Jauna, oinazetan eta nahigabe-artean bizi direnak, zurea duzun kristauen familia osoa, eta munduko gizon guziak.

Jainko gure Aita, zure Semearen bitartez egiten ditutzunak ikusi-ta harriturik gaude, eta berriz ere goresten zaitugu:

Hunen bitartez Hunekin eta Hunetan, Zuri, Aita, Jaungoiko guzieldunari, Izpiritu Sainduarekin batean Ospe eta aintza guzia gizaldi eta gizaldi guzietan.

Amen.